

Hainbaten bakardadea

'ANAREN BAKARDADEA'

Izenburua: 'Anaren bakardadea'. Jatorrizko izenburua: Soledades de Ana/Solituds de l'Anna. Egilea: Jordi Sierra i Fabra. Itzultzailea: Miren Arratibel. Argitaratze urtea: 2006. Argitaletxea: Erein.

A. IRIZAR

USKARATUTAKO liburuen txoko honetara, oraingoan, Jordi Sierra i Fabra idazle kataluniar emankorraren azken lanetako bat dakargu: *Anaren bakardadea*. Miren Arratibelek itzulita, Erein argitaletxearen haur eta gazte literaturako "Perzebal" sailean heldu

zaigu liburua. Lan honek orain bi urte ikusi zuen argia, katalanez eta gaztelaniaz aldi berean, eta, Sierra i Fabrak beste liburu batzuetan egin izan duen modura, hemen ere gazteekin zerikusia duen gai arantzatsu bati heltzen dio. Horrela, bada, beste batzuetan esate baterako anorexia, diseinuzko drogak edo arrazakeria hartu baditu hizpide, honako honetan gaztetxo nahi gabeko haurdunaldiak ditugu liburuen gai nagusia.

Liburuaren ardatza gai potoloa eta larria badugu ere, gazteei irakurterraza eta atsegingarria gertatzeko moduan dago idatzita: kon-

tatzeko modu arina, elkarrizketa biziak, irakurlearentzat identifikatzeko modukoak diren pertsonaiak... Egia esan, aisa irakurtzen den liburua da, eta lortzen du, gainera, arreta amaierara arte mantentzea. Sierra i Fabrak ez ditu alferrik idatzi gazteei zuzenduriko dozenaka eta dozenaka liburu, arrakastatsuak gainera horietako asko. Irakurterraztasunean badu zerikusirik, bestalde, Miren Arratibelen itzulpenak. Erraztasun hori, hala ere, ez du errazkeriaren bide-tik lortu itzultzaileak; hau da, irakurle euskaldun gazteak ez du ulertzeko arazo handirik izango,

baina, era berean aurkituko du, seguruenik, zer ikasia. Eta hori ere bada zerbait. Beste alde batetik, gaur egungo gazteen elkarrizketak-eta eman behar direnean, ez da beti erraza gertatzen euskara estandarrean naturaltasuna lortzea. Eta esan behar da alde horretatik liburua ez dela arrotza gertatzen. Itzultzaile honek, izan ere, idazleak berak bezala, badu eskarmenturik haur eta gazteentzako testuak idazteari dagokionez.

Liburua, bestalde, aipatzen duen gaiagatik ere gertatzen da interesgarria. Esan dugunez, nerabeen nahi gabeko haurdunaldiak eta

horren ingurumariak. Istorioa izenik ez dakigun herri batean gertatzen da, hau da, edozein herritan; pertsonaiak ere ez dira arrotzak gertatzen. Ezaguna zaigun agertoki horretan, zenbait jokabide agertzen dizkigu Sierra i Fabrak, hala nola gurasoen jokabidea, zenbait medikurena, gizartearena, gaztetxoena beraiena... Jokaera horiek, ordea, zuri edo beltz ageri dira, ñabardura handirik gabe. Bai, ari-nagoa eta errazagoa gertatzen da horrela liburua, baina, apika, sendotasun pixka bat ere galtzen du; izan ere, liburukoa baino konplexuagoa izan ohi da errealitatea.